

Gernikako Bakearen Museoa "Izenek ezkututzen duten oinazea"

Ibai Maruri.

Gernika-Lumo

Zenbait izen gogoan ditugun arren, sarri askotan ez gara konturatzen horien atzean zer-nolako zoritxarrak eta bizipen pertsonalak ezkututzen diren. Gernika, Hiroshima eta Nagasaki izen hutsak baino gehiago dira: tragedia latzak, hausnartu du Iratxe Momoitio Gernika-Lumoko Bakearen Museoko zuzendariak (Bizkaia). Erakusketa inauguratu berri dute 1945ean Japoniako bi hiriotan gertatutakoa ezagutarazteko eta horrelako erasoek eragiten duten suntsipenaz gogoeta eragiteko asmoz.

II. Mundu Gerra amaitzeaz zegoela, historian aurrenekoz, bonba atomikoa erabili eraso zieten. AEBetako gerra hegazkinak abuztuaren 6an eta 9an igaro ziren Hiroshimatik eta Nagasakitik. Baina hura ez zen izan herritarren aurkako lehen eraso. 1937ko apirilaren 26an, Gernika-Lumok izan zuen zorigaiztoko zerrenda estreinatze inork beretzat nahi ez lukeen ohorea. Bonba atomikorik ez da gehiago gerran erabili, baina herritarren aurkako erasoak ohiko bihurtu dira. Zorigaiztoko abuztu hartan, 200.000 gizon-emakume, adineko eta ume baino gehiago hil ziren. Japoniako gobernuak oroigarritzko aretoak eraiki zituen bai Hiroshiman bai Nagasakin. Bizia galdu zutenak gogorarazteko ez ezik, bakearen aldeko oroigarri bat izatea nahi zuten. Gainera, poliki-poliki, Nagasakiko eta Hiroshimako erasoetan euren burua salbatu zutenak hiltzen ari dira, adinean aurrera egin dutelako. Lekukoak desagertuz doaz. Horregatik dute garrantzia erakusketa honek eta antzekoek museoko zuzendariaren esanetan.

Hain zuzen ere, Nagasakiko Bakearen Oroigarritzko Aretoa da erakusketa honen antolatzailea. Ibiltaria da, eta aurretik ere bisitatu izan du Euskal Herria. Duela bi urte egon zen Gernika-Lumoko museo honetan bertan. Udaberrian Nagasakiko fededun katoliko talde bat Gernika-Lumora etorriko da, hiriko gotzaina buru dutela. Urrian BERRIAk aurreratu zuenez, bonbardaketan kiskali zen Ama Birjinaren irudiaren burua ekarriko dute erromesaldian. Japonian bakearen ikurtzat dute Nagasakiko katedralean gurtzen zuten Andre Maria. Bisita hori aprobetxatuta, erakusketa berriz antolatu dute. Hainbatek egindako eskaerari erantzunez hartutako erabakia izan da.

Bigarren aukera

Harako hartan, Picassoren Gernika lan ezagunaren zirriborroak ere ikusgai izan ziren, eta Japoniatik ekarritako hau haren itzalpean geratu zen.

Oraingo honetan, bada, 39 panelak bakarrik egongo dira ikusgai, bisitarien arreta guztia oso-osorik erakartzeko asmoz. Erakusketak hiru atal ditu. Aurrenekoak azaltzen du energia nuklearra eta bonba atomikoa zer diren eta nola sortzen diren. Baita zer eragin dezaketen ere. Bigarren atalak erakusten du Japoniako bi hiri horiek estatubatuarren erasoak pairatu aurretik nolakoak ziren, egun haiek nolakoak izan ziren eta ondoren zer etorri zen. Azken atala itzaropenari lotuta dago. 65 urte igarotakoan hiriok izan duten bilakaera ikusten da. Baita hiriotako bakearen museoari buruzko datuak ere. Panelak euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez daude.

HIROSHIMA-NAGASAKI

Non. Gernika-Lumoko Bakearen Museoan (Bizkaia).

Noiz. Ekainaren 13a bitarte.

Sarrera. Aldi baterako erakusketa hau bakarrik ikusi nahi izanez gero, doan da. Erakusketa iraunkorra ere ikusteko, 4 euro.

Ordutegia. Asteartetik larunbatera, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00. Igandeetan, 10:00etatik 14:00etara.